

2013/2014 DENBORALDIA

Lehen urratsak

OarsoMusika

2012ko udan Oreretako Kabian "Mikro Irekiak" ekimenean parte hartzen genuen lagun batzuk hasi ginen ideiarekin. Ekimena zabaltzeko asmoarekin bilkura deialdiak zabaldu genituen. Bileretara esparru desberdinetako jendea etorri zen: musika taldeak, lokalik gabeko musika-riak, argazkilariak eta diseinatzaileak, kontzertu programatzaileak... orokorrean kultura eta musikarekin interesa zutenak.

OarsoMusika eskualdean jarduteko asanblada moduan funtzionatzen duen musikazaleen foro ireki bat da. Aurten, autokudeaketa, parte-hartze ireki eta horizontala oinarri duen diru irabazi asmorik gabekoa elkarte legal batean bilakatu gara.

Lantaldearen helburu hauexek dira: bertako taldeen sustapena, musika (bere zentzu zabalean) programatzea eta bideratzea; aldi berean, hizkuntza errealitatea kontuan izanda kulturen arteko eta belaunaldien arteko lanketan jardutea.

Iaztik, Niessen aretoetan musika emanaldiak antolatzen ari gara. Soilik entseguetarako erabiltzen zen areto bat eta areto nagusia, udalarekin elkarlanean, produkzio musikalek eskatzen duten beharretara atondu ditugu. Gure asmoa, kurtsoan zehar hilabetean behin gutxienez musika emanaldi bat antolatzea izan da. Urte honetan zehar herriko ekintza hau beste kolektibokin elkarbanatzea ere nahi izan dugu, era horretan, Zintzilik irratiarekin, Tartalariarekin, Gure Esku Dagorekin, Saretuzekin, Denborak ez du etenekin... kolaborazioak izan ditugu programatutako kontzertuetan.

2013/2014 Denboraldia

urriak 3: Terry Lee Hale + Arrate Arozena

urriak 4: Crisischrist, Infest, Titadine, Kamorrak, Ras

azaroak 8: Kakahuete, Toil, Jo ta Tiro

azaroak 16 (zintzilik jaia): Nonguayaz, Inoren ero ni, Borrokan

azaroak 19: Samsara Blues Experiment (GER)

azaroak 30: Adrenalized, The Holy Buttons, Dffunk

abenduak 5: John Berkhout, Napoka Iria

urtarrilak 18: Kauta, Governors

urtarrilak 25: Niña Coyote eta Chico Tornado, Estricalla

otsailak 1: Eneritz, Ixuriak, DJ Juxe, DJ Aitor

otsailak 8: Bide Ertzean, Xabi ta Petti, Kokein

otsailak 14: Joseba Tapia, Lorea Intxaurrendieta

martxoak 8: Erroma, Yaw, The Inductions

martxoak 21: Xabi San Sebastian Band, Jexusmai Lopetegi

apirilak 5: Imanol Carballo eta Zudaire, Sardeska, ON

apirilak 26: Sutura + Los carniceros del norte

maiatzak 10: Okensay, Busker Juice, The great Barrier

ekainak 7: Libe + Kàshbàd

ekainak 22: Autoramas (BRA)

Horregatik animatu nahi dugu herriko elkarte eta pertsona oro, kontzertuak antolatzeko edo herriko musika giroa sustatzeko gogoia izanez gero, sortutako lantaldearekin harremanetan jartzera.

Gure emaila: oarsomusika@gmail.com

www.facebook.com/oarsomusika?fref=ts



John Berkhout auditorioan gau magikoan, ia 300 lagun bildu zituen (arg: Unai Huizi).



Kashbad "Arrakala" diska berriaren aurkezpenean (arg: Unai Huizi).



Kauta auditorioan "Agerre" diska aurkezten (arg: Unai Huizi).



Niña Coyote eta Niño Tornado entsegu gelan egurra eman zuten (arg: J. A. Areta Goñi, Juxe).



Bartzelonako The Holy Buttocks (arg: J. A. Areta Goñi, Juxe).



Jesuxmai Lopetegi eta Xabi San Sebastian lehen aldiz taulan gainean elkarrekin (arg: Unai Huizi).